

UDAL ORDENANTZA, UHARTE ARAKILGO UDAL IGERILEKUETAKO ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN GAINEKOA

1. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Ordenantza honetan tipifikatutako arau-haustek egiteagatik erantzukizuna eskatzeko, zehapen-ahalmena erabiltzeko lege eta erregelamenduek ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

2. Zehapen prozedura abiatzeko eskumena duen organoak dakienean gertaerak arau-hauste administratiboa ez ezik, zigor-zuzenbideko arau-haustea ere izan daitezkeela, organo judicial eskudunari jakinaraziko dio eta geldirik utziko dute zehapen prozedura -hasita badago-, harik eta agintari judicialak bere iritzia eman arte.

Zehapen prozedura geldirik dagoen bitartean, etentzat joko dira bai arau-haustearen preskripzio epea, bai prozeduraren beraren iraungipena.

2. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

a) Arau-hauste arinak.

-Instalazioa erabiltzen ari diren pertsonak edo bertako langileak modu desegokian tratatzea.

-Titularra ez den inork instalaziora sartzeko txartela edo baimena erabiltzea.

-Arautegi honetan ezarritako beste edozein betebeharrak, debeku edo mugapen ez betetzea, betiere horrek arau-hauste larrikeria edo oso larrikeria ez badakar.

b) Arau-hauste larriak.

-Sarrera ordaintzeko betebeharrak ez betetzea edo, behin horretaz ohartarazita, hura ordaintzeari uko egitea.

-Instalazioetako materiala edo erabiltzaileen gauzak lapurtzea edo ebastea, edo instalazioak nahita hondatzea.

-Instalazioen barrenean ordena hankaz goratzea.

-Hiru hutsegite arin egitea.

3. artikulua. Zehapenak.

1. Zehapenak mailakatzean kontuan hartuko dira kalte egin nahia, arduragabekeria edo egindako ekintzaren larritasuna.

a) Arau-hauste arinen ondorioz, haiei dagokien zehapena ezartzen ahalko da: idatzizko ohartarazpena edo erabiltzaile izaera gehienez ere astebetetz galtzea.

b) Arau-hauste larrien ondorioz, haiei dagokien zehapena ezartzen ahalko da: erabiltzaile izaera gehienez ere 30 egunez edo behin betiko galtzea.

Erabiltzaile izaera zehapen baten ondorioz galduz gero, instalazioa erabiltzeko ordaindutakoa ere galduko da, eta berekin ekartzen ahalko du hurrengo udako denboraldian berriz ere erabiltzaile bihurtzeko ezina.

Iragarkiaren kodea: L1213486